

INKESTA ORDIZIAN

Deskribapena: Ordiziko kaleetako imajinak ageri dira jendearekin eta Kike kale batetik ibiltzen agertzen da eskutan Euskal Herriko maparekin makiladun kartel bat duela. Gero kartel hau mapatik kanpo hiru hitz dituelarik jendeari erakusten joaten da.

Kike: “Jolasa hau da: hiru hitz hauek sinonimoak dira, euskalki diferenteetakoak eta zuek asmatu behar duzue non erabiltzen diren, ea, non jarriko zenituzkete?”

Deskribapena: Pertsona desberdinak ageri dira imajina desberdinetan hiru hitzak maparen gainean kokatzen eta jartzen duten bitartean komentatzen doaz:

Lehenengo gizonezkoa: ““Neskeneguna” jarriko nuke hamen.”

Kike: “Zuk “arkakusoa” esaten duzu.”

Bigarren gizonezkoa: “Bai.”

Kike: “Eta non esaten dute arkakusoa esateko, non esaten dute “kukusoa” eta non “ardia”?”

Hirugarren gizonezkoa: ““Sagarroia” Gipuzkoan.”

Lehenengo bikoteko mutila: ““Kukusoa” hemen, Iparralden, eta “arkakusoa” Bizkaia inguruan.”

Bigarren bikoteko lehenengo emakumezkoa: “Ez dakit, “zapatua” non?”

Bigarren bikoteko bigarren emakumezkoa: ““Zapatua” hemen esaten da baita, ez?”

Bigarren bikoteko lehenengo emakumezkoa: “Bai, ez? “Zapatua” hemen.”

Kike: ““Ebibakoitza” non esango zenuke?”

Lehenengo emakumezkoa: “Ideiarik ez.”

Bigarren emakumezkoa: “Eta kirikinoa ba, auskalo, ba, Nafarroan.”

Hirugarren bikoteko lehenengo emakumezkoa: “Iparralden?”

Lehenengo gizonezkoa: “Nik behintzat esaten det.”

Hirugarren emakumezkoa: “Ez daukat ideirik ez, e?E

Hirugarren gizonezkoa: ““Kirikinoa” Bizkaian eta “trikua” ere Gipuzkoan.”

Laugarren gizonezkoa: ““Sagarroia” Nafarroan, eta zeoze jartzeagatikan, e! Ez dakit, e!”

Lehenengo emakumezkoa: ““Neskeneguna”?”

Kike: “Bai, non esaten ote da?”

Bigarren bikoteko lehenengo emakumezkoa: “Bai? Ez.”

Kike: “Hor?”

Hirugarren emakumezkoa: “Iguaral hementxe. Gaizki ibili al naiz?”

Deskribapena: “Kike hitzak mapan dagozkien lekuan jartzen agertzen da.”

Bigarren emakumezkoa: “Alderantziz?”

Kike: “Holaxe!”

Emakumezkoa: “Ah! Oso ondo!”

Kike: “Bi horiek ondo asmatu dituzu eta hau ere bastante!”

Kike: “Hau ondo!”

Lehenengo emakumezkoa: “A bira!”

Kike: “Eta hau hemen!”

Lehenengo emakumezkoa: “A bira!”